

FRANTZIA. Ustelkeria leporatzen diete akusatuei, eta haien aurkako prozesua hemendik lau astera amaituko dela espero da

'Elf auzia'gatik Dumas ministro ohia epaituko dute

Kontseilu Konstituzionaleko presidente izandakoa da auzipetutako zazpietatik bat

Erredakzioa | BAIONA

Elf auzi korapilatsuko lehendabiziko epaiketari hasiera eman zioten atzo Parisko epaitegi korrekzionalean, *Dumas afera* bezala ezagutua den atalarekin. Frantziako Atzerri ministro bi aldiz egondako Roland Dumas ez gain, haatik, enpresa publiko baten dirua desbideratzea eta jokaera honetaz baliatzea leporatuta zaie beste sei laguni. Auzipetu guzti hauen arteko lotakaria Christine Deviers-Joncour 53 urteko anderea da, honi egotzia baitzaio Elf petrolio sozietatearengandik 64,5 milioi liberako dirutza jaso izana, benetako jarduerarik izan gabe enpresan.

Gaur egun 78 urte dituen Roland Dumas ministro eta Kontseilu konstituzionaleko presidente ohiari akusazioak bizkar ezartzen diona da, ordea, bere karguaz eta itzalaz baliatu izana bere maitalea zeukan Deviers-Joncour Elfek ordaindua izan zedin, 1989 eta 1993 urteen bitartean. Lau urte horietan zehar, Deviers-Joncourrek eskuraturutako diruaz berak ere abantailak jaso izana egotzen dio akusazioak Dumasi eta horregatik zuten auzipetu 1998ko apirilaren 29an. Preseski, Parisen Deviers-Joncourrek erosi zuen luxuzko etxebizitzaren benetako jabea eta erabiltzailea bera izatea eta bere maitaleak

eskaintako hainbat opari eskuratu izana zehaztuta daude Dumasen aurkako karguetan.

Christine Deviers-Joncour bera aurretik auzipetu zuten, zehazki 1997ko azaroaren 7an,

AKUSATUETAKO BI

Ministroa eta aferako pertsona gakoa

Roland Dumas. 1989-1993 urteen artean bere maitaleari Elf enpresari ordain ziezaion kargu publikoaz baliatzea egotzen dio akusazioak.

Alfred Sirven. Auzi osoaren giltzarri bezala emana da, baina ez dute oraingoz epaituko 1997. urtetik Frantziatik kanpo ihes egin baita. Filipinetan zegoen zurrumurrua hedatu zen.


eta giltzapean geratu zen 1998ko apirilaren 9a arte. 1999ko martxoaren 3a arte, Deviers-Joncourrek uko egin zuen Elfetik jasotako diruak zerikusia izan zuenik Roland Dumasen jarrerak gidatzeko. Eva Joly eta Laurence Vichnievsky ikerketa-magistratuen ustez, aldiz, Elfek nasai emandako dirua Thomson armamendu enpresaren aldeko bitartekaritza

baten ordaina zen, Frantziako Gobernuak onar zezan fragata itsasontzi militarrek Taiwan saltzea. Roland Dumas salmentaren aurka zegoen, Txinarekin harremanak ez zitezen txarrera bihurtu baina, 1991. urtean, hala ere, Frantziako Gobernuak baietza eman zion saltzeari.

Sirven pertsonaia klabea ihes egin 1997tik

Fragaten afera honek, haatik, ez luke behar aztertua izan lau aste iraungo duen auzi honetan. Hamaika epaiketa saioetan zehar, Elf sozietatearen kaltetan dirua desbideratzea eta honi esker jasotako abantaila ez legezkoak besterik ez lirateke jujatu behar. 1989 eta 1993 urteen bitartean, Elf enpresaren zuzendari nagusi egondako Loïc Le Floch-Prigent, Gabon herriko Elf adararen zuzendari ohi Andre Tarallo, Suitzako filiala bat zen Elf Aquitaine Internationaleko (EAI) agintari nagusi Jean-Claude Vauchez, Deviers-Joncourren maitale izandako Gilbert Miara negozio gizona eta Alfred Sirven Elfeko bigarren agintari goren egondakoa dira beste lau auzipetuak.

Haatik, Elf auzi osoaren giltzarria eta pertsonaia klabea bezala emana den Alfred Sirven ez da epaileen aurrean agertuko, 1997. urteaz geroztik Frantziatik kanpo ihes egin baita. Azken denboretan Filipinetan zegoela zabaldu zen berria, baina bertako Poliziak eta Frantziatik etorritakoek oraingoz ez dute haren atxilotzerik lortu.



ERIC FEFERBERG / AP
Roland Dumas Frantziako Atzerri ministro ohia auzitegian, atzo.

ANALISA

■ Allande Sokarros

Ustekeriatik ustelkeriara

Elf auziaren atal bat besterik ez den arren, Dumas aferak argira dakartza itzalpeko hainbat jokaera. Atzo epaitzen hasitako legez kanpoko egitateak Francois Mitterranden agintaldi denboran gertatzea ere ez da harritzeko modukoa, gaur egun oso argi —ez ginateke «eta garbi» eransterat ausartuko— gertatzen baita lege haustez, azpijokoz eta isilpeko jokamoldez jositako izandako garaiak izan zirela 14 urte haiek. Aurretik ere legeak egiten edo eginarazten dituzten horiek beraiek saiheste eta zangopilatzeak ugari izan ziren, zalantzarik gabe. Baina, 1981. urtean, 20 urte baino gehiagoz oposizioan egonik, ezkerreko indarrak agintera iritsi zirelarik, ustekeria bat bazen, horiek ez zirela eskuinekoak bezala jokatu, boterearen funtzioari hala zuzentasuna nola zintzotasuna emango zirela. Ezen, sineskizun honen arabera, eskuinekoak ziren diruaren legearen aldekoak, edozein jukutziara prest zeudenak aberatsak beti aberatsago bilakartzeko, jende xumearen bizkar eta ezkerrekoak ziren, aitzitik, guztionen alderantzizkoak, zuzentasunaren aldekoak, ekonomiaren legeak bidezkoak egingo zituztenak, langile gizartearen egoera hobetuko zutenak.

Mitterrandek eta sozialista frantziarrek gizarte hobe baten itxaropenezko amets asko esnatze gogor bilakarazi dituzte. Areago denez, eskuinekoak baino diruaren zerbitzari trebeagoak azaldu dira, burtsak eta finantza inbertsioek ez baitute inoiz hainbesteko etekinik eskuratu ezkerreko aginteen pean baino. Roland Dumas da amesgaizto honen pertsonaia ohargarrienetatik bat. Mitterranden adiskide mina izanda, ez zen pentsatzekoa ere zintzo eta eredugarria izango zenik. Prestutasuna ezkerreko balore bat zegoelako ustekeriatik ustelkeriaren errealitate garatzera eraman gaitu. Zuzen lege tutik ere ez zaukan, antza denez, bere bizitza pribatuan. Nola izango zuen bada, pertsonaia publikoaren paperean?



'GABONETAN OPARIAK EUSKARAZ' deituriko kanpainaren barnean, Gipuzkoako Foru Aldundiak EGUNKARIA jasotzeko 200 harpidetza zozketatu zituen. Argazkian, Lorea Leanizbarrutia Foru Aldundiko Euskara zuzendaria eta Idoia Sanz EGUNKARIAKO publizitate arduraduna zozketa egin zenean.